


Kiñu Gaztetxearen XII. urteurrena aprilean

Igorreko Kiñu Gaztetxeak hamabi urte ospatuten ditu eta jarduera ugari antolatu dira aprilerako. Lehenengo hamabostaldian bertso-saioa eta Olaia Inziarte eta Indigoren kontzertuak egingo dira. Datorren asteetan barriz Manex Astigarragaren umorezko bakarriketea eta pailazo ikuskizuna egongo dira. Jai nagusia oster, aprilaren 25ean egingo da, Kinto Egunagaz batera.

9. eta 20. orrialdeak



Ikaragarria izan da 24. Korrika Arratia eta Ubiden

Martiaren 27ko goizean pasau zan Korrika guretik eta argazki itzelak itxi ebezan emozino eta aldarrikapen artean batu ziran milaka euskaltzaleek.

Momentu hunkigarrienetako bat Areatzako plazan Klara Astondoa lekukoa hartu ebanekoa izan zan. Astondoa 14. Korrikako Bizkaiko arduraduna izan zan eta 15. Korrikatik 19.-era arte, Korrikako bigarren ardunaduna. Holan, omenalditxo egin eutseen Areatzako Udaleko kilometroan. Barruko orrietan Korrikako argazkien bildumea dakargu. **10., 11., 12., 13., 14., 15., 16. eta 17. orrialdeak**



Klara Astondoa Areatzako Udalaren kilometroan.

ARRATIA

Greba orokorra Arratia, Ubide eta Zeberion



Martiaren 17aren ostean, LAB, ELA, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek greba orokorra "euskal langile klasearen indar erakustaldi bat" izan zala aldarrikatu eben eta honek, jarraipen zabala izan ebala balorau eben. **5. orrialdea**

ARRATIA

Arratiako Koruak 75 urte



Arratia eta Bizkaiko instituzino kulturala dan Arratiako Koruak 75 urte bete ditu eta hau ospatuteko Agate Deuna eta aldaerak diskoa grabau eta aurkeztu dabe, 250 persona ingururen txaloen artean. **9. orrialdea**



Literatura txokoa

ODOLAREN MINTZOA

Urepeleko artzaina hil zala eta *Odolaren mintzoa* (Auspoa, 1976) argitaratu ebela berrogei urte joan ziranean (eta joan dira beste hamar!) Amets Arzallusen hitzurre elegante bategaz ekarri euskuen barriro Urepeleko pastorea. Behin eta barriro bertara joten dot, izan be, beharbada, bertso-bildumen gailurra da liburu hau, herrikoitasunaren eta poesiaren arteko buztartze miragarri bat bizitzari kantetako, familiari, baserriari, hizkuntzeari...

Ipar eta Hego Euskal Herriko bertsozaleak alkartu ebazan Xalbadorrek. Euren eredu izan zan. Mattinegaz egindako plazez eta txapelketetako jardunek markea itxi eben. Eta zelan ahaztu 1967ko Euskal Herriko Bertsolari

Txapelketa Nagusiko Donostiako finala: "Zuek ezpazerate kontentu, errua ez daukat, ez, nik, txistuak jo dituzute bainan maite zaituztet oraindik". Eta oihartzuna egiten dau eiteak: "ez daukat ez nik", bi bider "ez", eta gauza bat da bertsoa bota eta haizeak eroatea, giro jakin baterako ontzea umore errimatu, lirika arean lodi bat egitea edo malenkonia lantzea... eta beste bat da, oster, estetikari eta baliabideari hain forma finak emotea.

"Lotsa bat bezala ematen dit ni jendearen aurrean hola azaltzeak, askok ezagutzen ez nauten bezala. [...] Nire akats asko, nire aitortza asko egitan zatitua bezala".

Bidegileak sailean Mikel Atxak deskribatzen dauan eran, "Seiak

bat" kantauko dau beti Xalbadorrek, eta ez dau sekula onartuko frantsesa deitzerik: "Euskaldun da Xalbador eta punto. Txikitan eskolara joan zanean maistra edo errientsa euskaldunagaz topo egiteko zoria izan eban. Eta haregaz hor antza konpontzen zan, behar orduan euskeraz mintzatzen jakonez. Baina eskola handira heldu zanean maisu edo errient fransesagaz ez zan ondo konpondu".

Hartu eta edan egizue, bada, iturritik. Entzun bertsook eta irakurri berbok, mendian bizi arren Xalbadorrek berak be ez eban-ta ikusi egundo gaztaina-aren orriz jantzita pagoa.

Igor Estankona



Xalbador

Odolaren mintzoa

Elkar, 2016

196 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Martiaren 30etik aprilaren 5era
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara
Goiria Montoya (28-3). Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 6tik 12ra
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara
Melero (4-10). Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 13tik 19ra
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara
Sarasketa (11-17). Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Gometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87

Medikuak
Arantzazu, Artea, Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95
Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17
mankomunitatea@arratia.eus

Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net

Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543
info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubidetik. Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.
*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

A3712 linea. Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.

A3712 linea. Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.

Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60

6A linea. Otxandio-Legutio
Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegioen eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.

6A linea. Legutio-Otxandio
Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegioen eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.
Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketek:** Aritz Zapiko (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Xabier Gorostiaga (Arantzazu, Areatza eta Artea), Alejandro Konadio (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/begitu), **Instagram:** [@begitu.eus](https://www.instagram.com/begitu.eus), **Mastodon:** [@begitu](https://mastodon.social/@begitu), **X:** [@BegituEus](https://twitter.com/BegituEus) **YouTube:** [@BegituAldizkaria](https://www.youtube.com/BegituAldizkaria)

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



Babesleak:

Arantzazu

Areatza

Artea

Bedia

Dima

Igorre

Lemoa

Ubide

Zeanuri

Zeberio



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Arteako Kokomarroak

2020an hasi ginan Aratusteak herritik eta herriarentzat ospatu guran. Horretan genbizala, Kokomarroei buruzko L.M. Amundarainen lekukotasuna heldu jakun esku artera. Horretatik tiraka, 2021erako atondu genduan lehen agerraldia. Urteokaz personaia barriak batu jakuz: Kapaxea, Huntzurrie, sutautsek edota Errementarie barbarako.

Urtero epaituten dogun Kuberue-k, erre beharrekoa irudikatuten dau, Inauteriak iragarten dauan aro barrian gura ez doguna. Izan be, jai bat baino gehiago da guretzat Inauteria: eredu kapitalistatik urundu gura dauan erritua, komundadea saretuteko aukerea eta kritikarako abagunea.

ERETXIA

Lehenago auzolanean egiten ziran ekintza batzuk

Jakin badakigu zer dan auzolana, taldean eta debalde egiten dan lan bat, baina lehenago beste modu baten egin behar izaten zan. Ez egoan gaurko aurrerapenik, makineriarik eta abar, eta dan-dana eskuz egin behar izaten zan.

Nahiz eta sarritan auzokideen artean euren gorabehera batzuk izan, egoera hareetan eztabaidak albo batera itxi eta laguntzera hurreratzen ziran.

Auzolanean egiten ziran lan edo ekintza batzuk honeek ziran:

Udan bedar arloak ebagiten ziran sikatzeko, neguan ganaduari emoteko. Euria egiteko arriskua baegoan, nahiz eta domeka arrastia izan, han agertzen ziran auzokoak, inork ezer esan barik, eskutilak lepoan zituelarik, bedar-batzean.

Txarria hiltea “erritu antzeko” bat izaten zan. Goizean goizetik, han etorten ziran, banan-banan, txarri hiltzailea eta eutsitzaileak. Ordurako, etxeko andreak prest izaten eban mahaia, anis botileak, eskapolotean gordeten ziran txikiardiko kopak eta galleta uberi gainean zirala.

Txarria hil eta hurrengo beharra, txarria erretea izaten zan. Gehien baten lehenagotik ebagita eta sikatuta eukiten zan idea erabilten zan sugarrilez. Erre eta gero, teila kaskuakaz, eta lapiko tapakaz, azala igurdi eta uragaz garbitzen zan. Gero, hiltzaileak txarria kanalean zabaldu, barruak atera, pisatu, zenbat arroa hartu dituan jakiteko, eta eskegi egiten zan. Behar honeek eginda, hamaiketakoa egiten zan, berakatz-zopea eta txarriaren gibela janari zirala.

Baten bat hiltzen zanean, gorpua etxean egoten zan enterru eta eleizkizuna egin arte. Enterruak goizetan izaten ziran eta senide batzuk urrunetik etorten ziranez eta gaurko komunikabi-



FELIPE BARRENETXEA ZAMAKONA

Jubiladua

Enterruak goizetan izaten ziran eta senide batzuk urrunetik etorten ziranez eta gaurko komunikabiderik ez egoanez, danontzat bazkaria hildakoaren etxean, bertan, egiten zan

izaten ebezan, gaur egun be, eraginak dituelarik.

Gari joteak jente askoren beharrezko izaten eban, auzolana derrigorrezkoa izanik. Gari eskutak solotik etxeratutako, eguzkiak emon daioen zabalatzeko, harri-losearen gainean eskuz golpeka joteko, jotako eskutak eta gari-garua batzeako eta abar.

Entzutea daukat antxina-antxinean gari joteak amaitu ondoren, batzutan, festa moduko bat egiten zala jantza mota bat jantzatuaz, “Erregleta jantzea” deitzean jakona.

Auzolanean egiten zan beste lan bat, laietan izaten zan. Solo arlo txikerrak ziranean, orturako esate baterako, lurra goldatzeko, laiakaz egiten zan. Lan hori be, batek edo bik egiteko, urri geratzen zan, eta auzokoen laguntzea eskertzen zan, eta alaiagoa izaten zan danak ilaran mobimentuak sinkronizaurik.

Haziak ereiterakoan, artoa eta babea, esate baterako, auzoko andrak etorten ziran, gizonezkoak baino abilagoak ziralako eskulanetarako.

Bideak garbitzeak, eta eleizea eta ermiten konponketak be, holan egiten ziran, auzolanean.

Etxe edo baserri bat suak hartu eta erreten zanean, barriztutako edo barria egiteko, konfiantzazko bi aukeratzen ziran etxerik etxe dirua batzeako. Ekintza honeri “etxe erreana batzea” deitzen jakon. Baziran, beti lez, nozean behin, guzurrez ibiltzen ziranak eskean, gertaera hori urruneko herri baten gertatu zala esanaz.

Orduko etxeak egurrezko estruktura izaten eban eta batek etxe barri bat egiterakoan, etxe baten jaubedunak ziranez, zuzatz garrazta bi edo hiru eskatzen jakiezan.

Lehenago baserriak sakanatuta egon arren, beharri-zanak, beste gauza batzuren artean, jentea alkartuarazo eta batu egiten eban. Oin oster, herrietan eta urietan, alkarren ondoan, atez ate, bizi arren, sarritan bakarrik sentitzen gara.



LUMATUTEN



ALASNE ARTETXE

Klik...klik...

Egunkarietako orrietan agertzen ez diran heriotzak egon bada- goz... udaletxeak aginduten dauzan informazino orrietan agertzen ez diran heriotzak egon badagoz...

Petrolioaren garestitzeare- na, motoreen orroarena, mi- silen botatearena... horreek... horreek bai agertuko jakuz orrietan... hizki larritz.

Klik...klik...klik...

Herri txikietako tabernak, txokoak, ostatuak, bentak... arki- tektura emozionalaren zutabea dira. Tabernetako barra horreek gure plaza osasuntsuaren sei- nale dira, neguko arrastiko sei- retan hotzetik eta bakardadetik babesten gaituen aterpeak, eguerdiko poteoan mundua konpontzeko lekuak, begiradea- gaz auzokideen egoera igar- tekoak, bakardadeari ospa es- atekoak... bertan saretzen dira auzo-laguntzak, parrandak, do- luak, artegatasunak... Herriaren norabidea eta egoera kalibra-

tzeko balio dabenak.

Halanda be, ez dago itxa- ropenerako tarterik persiana horreek edota leiho-oholak ugertu edota usteltzen hasten diranean. Itxierak herriaren desegite soziala sinbolizatzen dau; gure bizitza kolektiboaren akaberea eta porrota. Hori ha- lan izanda, gure herriak logela hotz bihurtzen dira, dekorau huts, bertakoak “egon” baino ez diran lekuak ez “bizi”, alkarrerri lepoa emonda, beren etxeetako hormen artean gatibu.

Eta berbea, sasoi baten do- bakoa eta kolektiboa zana, itxiera horrek eroan dau bera- gaz batera.

Oin dala zenbait aste El Co- rreo Español egunkariko titula- rra hau izan zan: “Gimnasioak dira taberna barriak”. Hori bai, gimnasioetan bakotxa bere tresna digitalen menpe bizi da (eta gorputz perfektuaren bilaren menpe), eta berbea ito egin da bere izerdiaren erruz.

Oin dala aste bi, barriz, Argia astekariaren titularrak beste hau inoan: “Taberna bat ixten danean, ateak zabaltzen jakoz eskoi muturrari”. Atzen horreek berba egitea galazoten dabe.

Klik...klik...klik...klik...

Tabernetako bonbilen argiak amatau dira. Persianak eta ohol-leihoak zarratu.

Isiltasunak eta berben gor- dinkeriak herriak irentsi dauz.

Tik...tak...tik...tak...tik...

ZERTZEAN



RAFA UGALDE

Amorru haziak
(nire memoria historikoaren atal bat)

WEz iezazkidazu galtzerdi zuriak marra go- rri eta berdearekin jantzi, ama!” esaten zenion amamari.

“Monjak harri txintxarren gainean belauniko jartzen gaitu-eta belaunak zauritu arte”.

Izoko Eskar zaharragoa zen eta hobeto jasaten zuen zigorra.

“Ez iezadazu trentzan lazo zuri-gorri-berde- rik jarri, ama!” esaten zenion amamari.

“Frankistek txakurre esaten didate, ama! Bel- dur ematen didate, eta ez diet begiratzten”.

“Zu! Txakurre! Kalean ikusita niri agur egin, gero!” esaten didate, eta ileetatik tiraka lazo zuri-gorri-berdea kentzen didate, ile eskukada bat eta guzti.

Horrela esaten zenion amamari ume zinela, eta amamak irauteko senaren geneak behar dituen elikagaiak ematen zizkizun eta hurrengoan ere jantzi egiten zizkizun ko- lore debekatu haiek, eta erruki guztiduna zen balizko jainko baten balizko emazte ziren monja erruki gabeek

harri txintxarretan belauniko jartzen zuten zazpi urteko umea, eta txakurre esaten zizutenek eraso egiten zizuten, atzera. Mutilak ziren, koldarrak, eta zeure aldean na- gusiak.

Gaur egun horiek guztiak hilda daude, batzuk zaharraren zaharrez, beste batzuk erein zituzten amorru-haziek ernarazitako amorruak akatuta.

Eta badakizu, ama... tripetan ernetzen zaidan zirrara batek esaten dit txakurre esaten zizutenak ondo hilda daudela eta ondo daudela hilda.

Eta beste zirrara batek esaten dit haiek ez bezala pertsona izan zarela gizakia eta gizatasuna zer den badakiena, haien izen-abizenak sekula ez dizkidazu esan eta.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@begitu.eus helbidean.

BEGI TXINDORRA

Arratiako Mugimendu Feministea topera ibili da atzenaldian. Andra langileen aldarrikapenak atera ebazan kalera martiaren 8an eta deskantsurako denpora barik, martiaren 17an, langi- le guztionak. Halanda be, aldarrikapenak ez dabe asko iraun kalean. Manifestazino biak, M8 eta M17koak, Igorreko Kultur Etxean hasi eta amaitu ziran eta mobimentu feministeak bertan itxi ebazan eskegita pankartak. Mobilizau diranentzako bakarrik ez, aldarrikapenak danen- gana helduarazoteko.

Ez dabe iraun. Kasu bietan, 48 ordura apurtu dabez pankartak, sa- latu dabenez, “gauez eta ostenduta”. “Beste mundu bat feminismotik, burrukea eta antolakuntzea” eta “Bizitza duinak burrukatu, aberasta- suna banatu eta hemen erabaki” inoen pankartek. Aldarriok “estor- bu” edo “mingarriak” diran galdetuten dabe mobimentu feministatik; erantzunik?



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkoitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa Ortodontzia
Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulu: 901
R.P.S. 21/06



Soldatak hobetuaz, aberastasuna banatuteko greba orokorra egin zan martiaren 17an

Gitxieneko soldatea hemen ebaztea eta berau 1.500 eurokoa izatea izan ziran aldarrikapen nagusiak. Arratia, Ubide eta Zeberion Igorre erdialdeko negozioetan, hezkuntzan eta industrialde zein Cementos Lemonan igarri zan gehien greba.



Asier Abrisketa

Goizean goizetik igarri zan gu-rean greba orokor giroa. Arin zabaldu baebe be, Bedian erre-pidea ebagita agertu zan buel-tea emondako eukiontziaz eta alderik alde ipinitako kateATEGAZ. Momentu berean, 40 bat grebalari piketeak egiteko asmoagaz batu ziran goizeko 05:30ean Cementos Lemoako ateetan. Produktzioa geldirik egoanez Lemoako industrial-dera mobidu ziran eta bertan, Arratiako Greba Batzordeko kide batek BEGITU zehaztu ebanez, “nahiko zarratuta ikusi” eben dana eta errepidearen parean egon ziran grebalariak. Gero, Arteako industrialdera joan eta bertan be, “gehiena zarratuta egoala igarten zan”. Igorre-Dimako industrialdean barriz, enpresa bi zabalik egon ziran eta piketeek lortu eben enpresako ateak zarratutea. BATZen be, jentea lanean egon zan eta pike-teak kamioien sarrerea oztopa-tuten ibili ziran.

Lantegi industrialakaz amaitu-ta, grebalariak Igorre erdialdeko negozioetara hurbildu ziran gero. Greba Batzordeak Arratiako Merkatarien Elkarteko kideakaz batzartuta egon ziran aurretik eta negozio batzuk zarratuta egon ziran baina ez danak, eta piketeak hurbilduterakoan, ten-sino momentu batzuk bizi izan ziran negozioen jaube eta be-zeroakaz. Greba Batzordeko ki-deak defendidu eban: “Piketeen

Aberatsak aberatsago, poderea geroz eta esku gitxiagotan eta langile sektorea gero eta gehiago bazterrean

asmoa informatiboa zan eta ahal zan heinean baketsua, baina greba orokorra da eta ezin da dana neurtu”. Halanda be, pike-teak “arrakastatsuak” izan zirala balorau eban BEGITU grebalarie-tako batek.

Milaka eta milaka langile batu ebazan eguerdiko Bilboko mani-festazinoaren ostean, arrastian

be greba orokor egunari jarraipe-na emoteko, 250 bat grebalarik Igorre zeharkatu eben, taberna eta denda guztiak zarratuta ego-zala, manifestazinoan. Goizeko piketeak pasau ziranetik mante-nidu ziran zarratuta Lehendakari Agirre eta Elexaldeko negozioak baina Olabarrin bai, tabernak zabalik eta jenteezagaz egon ziran arrastian. Halanda be, manifes-tazinoa ez zan bertatik pasau eta Igorreko erdialdea “gora, gora, gora, langileon burruka” deadar eta beste aldarri batzuk hartu eben.

Manifestazinoaren bidean, gazteek etxebizitza duinak zein lan baldintza duinak lortzeako dabezan trabak ikusarazote-ko performance-a egin eben. “Kapitalisten interesak”, “lan prekarioak” eta “1.500 eurotik beherako soldatak”, inoen karte-lak eukiezan maskaratu batzuk gazte bat kateatuta eta honeri tiraka ebizala.

Greba egunari amaiera emoteko, manifestazinoa amai-tuteagaz batera ekitaldia egin zan Kultur Etxeko plazan eta bertan hartu eben berbea Greba Batzordeko langileek. Bertan, azaldu eben sasoi gatzak dirala langile eta herri sektoreentzat, “egunero darabilgun hiztegian krisi berbea ageri jaku; krisi eko-nomikoa, politikoa, soziala, eko-logikoa, zaintza lanena...”. Bitar-tean, agintarien joera autoritario eta faxistea salatu eben, honeek gerra inperialista, pobrezia eta prekariedadearen arduradun



izentauta: “Aberatsak aberatsago, poderea geroz eta esku gitxiagotan eta langile sektorea gero eta gehiago bazterrean”.

Azaldu ebenez, Euskal Herria ez dago errealdade horretatik salbu eta “patronala eta agin-tari politikoak eskutik helduta” doazen honetan, greba orokorra “langileok dogun tresna indar-tsuenetakoa” dala defendidu eben, grebaren aldarri nagusiak errepikatuteaz gainera, 1.500 euroko gitxieneko soldatea eta hau Hego Euskal Herrian era-bakitea: “Persona guztiei diru sarrera duinak bermatzea des-bardintasun sozialei aurre egite-ko eta aberastasuna banatzeko ezinbesteko osogaia da, justizia sozial kontua da”.

Amaituteko, langile klasea “bakarrik eta bildurtuta” gura dabenei aurre egiteko burruka-rako grina aldarrikatu eben: “Ba-daukaguz desadostasunak gure artean bai, baina gehiago dala batzean gaituana; mundu barri bat gura eta behar dogu, bizitza duinak erdigunean kokatuko dauzan eredu bat”.

Grebaren jarraipena Arratia, Ubide eta Zeberion

Martiaren 17aren ostean, LAB, ELA, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek greba orokorra “euskal langile klasearen indar erakustaldi bat” izan zala alda-rrikatu eben eta honek, jarraipen zabala izan ebala balorau. Arra-tia, Ubide eta Zeberion be igarri zan grebea, baina lan gatazka garrantzitsuak dagozan eskual-deetan baino jarraipen txikiagoa izan eban, barbarako Aiaraldean, Tubos Reunidoseko langileen egoerea dala-ta.

Industrialen barbarako, tailer txiki eta ertain gehienak zarra-tuta ikusten ziran arren, hainbat egon ziran zabalduta. Lantegi handietan be, desbardintasun nabariak egon ziran. Cementos Lemonan barbarako, produktzioa gelditu egin zan eta LABeko

Xabier Uriartek BEGITU azaldu dauanez, enpreseagaz adostuta, labea iziotuta manteniduteko behar ziran beharginak bakarrik egon ziran lantegian. “Pozik ga-goz emaitzeagaz”, balorau eban sindikalisteak eta hau, “ohitura sindikal handia” daukan langile taldeari eskertu eutsan: “Pro-dukzinoan % 85 inguru gagoz afiliata, asanbladetan parte-hartze handia egoten da eta datozen gazte barriak hurbildu-teko ahalegina be egiten dogu”. Ormazabalen barriz, grebaren jarraipena % 20-30 artean ibili zan; BATZen ostera, jarraipena oso txikia izan zan.

Hezkuntzan, jarraipena handia eta orekatuagoa izan zan. Le-moako Eguzkitza Meabe IPIko datuen faltan -zuzendaritzeak ez dauz emoten-, irakasleen ba-tez besteko jarraipena % 84koa izan zan eskualdean. Artea eta Zeanurin % 100ekoa izan zan grebaren jarraipena eta jarrai-pen txikiena Igorreko institutuan (% 66) eta Igorreko eskolan (% 68) emon zan. Sukaldari eta begiraleen artean barriz, jarrai-pena irakasleena baino zeozer handiagoa izan zan hezkuntza zentro guztietan, hain zuzen be, lan prekarioagoak diralako.

Orokorrean, denda, taberna eta bestelako komertzioetan jarraipena txikiagoa izaten da greba orokorrean eta oingoan ez zan desbardina izan. Greba orokorra batez be Igorren iga-rrri zan martiaren 17an. Goizean komertzio gehienek zabaldu baebe be, 09:00etatik aurrera piketeak egin ziran Igorre er-dialdean eta honen ondorioz, ta-berna eta denda guztiek bajatu ebezan persianak. Lehendakari Agirre eta Elexaldeko negozioak zarratuta mantenidu ziran egun osoa zehar. Halanda be, Olabarri auzoko tabernak zabalik egon ziran arrastian eta eguraldi ona zala-ta, jentez lepo gainera.

IGORRE

Instituzino eta gizarteak lehen sektoreari bultzadea emoteko jardunaldia antolatu dau Igitiek

Aprilaren 16an, Igorreko Kultur Etxean egingo da “hazi bat” izango dan Zer jango dugu bihar? Gaurtik eragin! berbaldia, 18:30ean.

Asier Abrisketa

Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkarteko kideak arduratuta dagoz Arratiaren etorkizun hurbilagaz: “Lehen sektoreko begietatik ikusten dogu mundua eta gaita egiten jaku etorkizun positibo bat irudikatutea”. Lehen sektorea eta honentzako hain garrantzitsuak diran merkataritza txiki eta hurbileko harreman sareak desagertuteko bidean dagoz eta horregaz batera, gure paisajea eta kulturea. Holan, Igitiek aprilaren 16an ekoizle eta baserritarrak, konsumitzaileak, herritarrak, eskualdeko intituzino zein enpresak, teknikariak, politikariak, ikastetxeak eta alkarteak batu gura ditu Igorreko Kultur Etxean, 18:30ean. Igitietik BEGITU azaldu dabenez, ez da berbaldi soil bat izango, etorkizunerako “hazi bat” izatea da asmoa; berbarako, etorkizunean Arratiako Elikadura Mahaia sortzeako. Izan be, beharrezkoa ikusten dabe instituzino, enpresa eta gizartearen esku-hartzea, lehen sektoreari behar dauan bultzadea emoteko.



Esperientziak ezetuteko berbaldia

Bide horretan, lehen sektore agroekologikoaren eta erakunde publiko zein pribaduen alkarlanari lotuta dagozan proiektuak ipiniko ditu mahaigainean Igitiek aprilaren 16an. Horretarako, Gipuzkoako alkarte bi konbidatu ditue: BioLur Nekazaritza

Ekologikoaren aldeko Elkartea eta Ereindajan, Debagoienan nekazal eredu ekologikoa bultzatuteko konsumitzaile eta ekoizleen alkartea. Honeek euren eredua azalduko dabe eta ortulaguntza zerbitzuez, gaztetxoentzako sensibilizazio kanpainetaz eta dirulaguntzen beharraz jardungo dabe aprilaren 16an.

DIMA

Txakolin Eguna antolatu da aurten be Garena Jatetxean

Garena prest dago beste behin Txakolin Eguna ospatzeko. Aprilaren 18an izango da hitzordua eta antolatzaileek aurtengo edizinoa berezia izango dala aurreratu dabe.

Asier Abrisketa

Dimako Lamindao auzoko Garena Jatetxean aurten be ospatuko da bertoko txakolina dastatuteko Txakolin Eguna. Hilaren 18an, eguerdiko 13:00etan hasiko da jaia, eta, ohikoa dan moduan, txakolina, janaria eta musikea izango dira protagonistak. Helburua argia da: herritarrak eta bisitariak alkartu, eta egun atsegin bat

partekatutea, tokiko gastronomia eta giro ona buztartuta. Antolatzaileek dei egin dabe: “Zatoz gugaz ospatzera!”. Parte hartzeako, aldeztu aurretik erreserba egitea ezinbestekoa izango da, WhatsApp bidez 627 595 959 zenbakian. Txartelak 70 euroko prezioa izango dau, eta egunean bertan ordainduko da. Aurtengo edizinoak, gainera, gonbidatu bereziak izango

ditu: Dos Truchas con Pasaporte proiektuko Andoni Sanchez eta Endika Amelibia izango dira enbajadoreak. Kurutzetakoek 2017tik dihardue bidai eta turismo edukiak sortzean, eta sare sozialetan –batez be Instagram eta Facebooken– jarraitzaile ugari daukiez. Euskadiko turismo kanpainetan be parte hartu dabe, eta euren lanak tokiko turismoa modu erakargarrian erakustea dauka helburu.

AREATZA

Bolibar eraikinak 100 urte beteten ditu aprilean

Aprilaren 18an beteko dira ehun urte Bolibar eraikina inaugurau zanetik, eta Areatzako Udalak ekintzak antolatu ditu ospatzeko.

Erredakzinoa

Aprilaren 17an, barikua, goizeko 09:00etatik 14:00etara Bolibar Fundazioaren gaineko erakusketea egongo da ikusgai argazkien proiektinoagaz batera, eta agiri originalak be ikusteko aukerea egongo da. Aprilaren 18an, zapatua, ospakizun nagusia egingo da: 12:00etan alkatearen ondoetorria izango da, eta jarraian Joserra Ipiñazarren eskutik aurkezpena. Ekitaldia lora sorta eskaintzeagaz, Agurragaz eta Nerea Zuloagak abestuko dauan kantuagaz osotuko da. Eraikinaren jatorria Bolibar

familiari lotuta dago, Areatzan mendeetan errotutako leinuari. Bartolome Bolibar Añibarro (1844–1923) izan zan proiektuaren bultzatzailea: politikan ibilbide nabarmena izan eban, baina beti mantenidu eban herriagazko lotura estua. Hil aurretik, bere ondare guztia herriaren esku itxi eban, eta horregaz sortu zan Bolibar Fundazioa, behartsuei laguntzeko eta umeei hezkuntza eskaintzeko. Fundazioak eregi eban eraikina. Ordutik, eskoletxea eta egoitza izan da, eta gaur egun barriro be hezkuntzarako erabilten da. Mende batez, herriaren zerbitzura egon dan ondarea da.



Bazkaria birentzako BEGITU BEGITUk lagun birentzako Txakolin Egunerako bazkaria zozke-

tatuko dau bere sare sozialetan. Egon adi, laster parte hartzeako aukerea egongo da-ta!



Musikearen eta kulturearen Bizkaiko erreferentziazko gunea izan gura dau **Ailarak-Musiktopa** zentroak

Elixabete Etxanobe: “Tradizinoak eta sorkuntza garaikideak bat egiten dabene gunea da hau, folkloreak adierazpide barriakaz berba egiten dauan tokia, kultura jagon, transmitidu eta eboluzionauko dauan lekua”.

Asier Abrisketa

Lehenagoko Ekomuseoaren sutearen laugarren urteurrenetik aste batera, Arteak Ailarak-Musiktopa inaugurau dau baserri berean; musikea, tradizinoa eta jasangarritasuna buztartuteko helburua daukan kultur gune barria. Folk musikeari eta euskal kulturearen adierazpen garikideei eskainitako zentro hau museoa, aretoa, Arratia Musika Eskolearen egoitza, taberna-jatetxea eta Gorbeialde Landa Garaipen alkartearen informazio puntua be izango da, besteak beste. Baina publikoarentzako maiatzean dago aurreikusita zabaldutea.

Martiaren 23ko inaugurazio instituzionalak Arratia eta Bizkaiko politikari eta kultur gile ugari ebazan. Ekitaldia- ren buru Alberto Intxaurreaga Arteako alkatea eta Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahal- dun Nagusia izan ziran eta hone- kaz egon ziran Leixuri Arri- balaga Euskara, Kultura eta Kirol diputadua, Iñigo Beras- tegi obraren arkitektoa, Ainare Sanchez Arteako Euskera eta



Kultura zinegotzia eta Victor Manuel Dominguez Arratiako Musika Eskolako zuzendaria, besteak beste. Kepa Junkera,

Gontzal Mendibil, Garazi Navas, Ane Goienetxe eta Endika Parralango musikariak be egon ziran ekitaldian. Arratiako udal

gehienetako ordezkariak eta Arteako alkarteetako kideak be egon ziran konbidautu; bai eta Maurizia Aldeiturriaga eta Leon

Bilbaoren senideak be.

Eraikin barruko zein kanpoko gunek bisitau aurretik, Alberto Intxaurreaga eta Elixabete Etxanobek berbea hartu eben Korta Musika Live izeneko areto eta eraikin multifuntzionalean eta aldarrikatu eben, Ailarak-Musiktopa Arteako Udalen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren alkarlanaren emaitza dala. Arteako alkateak gogoratu eban, hazia 2019an ipini zala, erre aurretik hasi zan- ta proiektua: “Lehen Ekomuseoa zanak bizi- tza barria behar eban, pentsau genduan taupada barria behar ebala, zentzua eta balioa berres- kuratu, udalerriaren onerako”.

Helburua “adierazpen tradi- zionalaren eta genero barrituen alkartzeko gunea” izatea zala gogoratu eban eta pandemia zein sute bat tarteko, aurrera egin dala aldarrikatu eban. Behin lanak amaituta, Elixabete Etxanobek lortutakoa goraiatu eta hau erreferentziazko gune izan- go dala adierazi eban: “Tradizi- noak eta sorkuntza garaikideak bat egiten dabene gunea da hau, folkloreak adierazpide barriakaz berba egiten dauan tokia, kultu- rea jagon, transmitidu eta ebo- luzionauko dauan lekua”.



AREATZA

Beste bost talde iragarri ditu Areatza Musik & Beer jaialdiak

Ibai Garcia Blues Project, Sergi Estella, El Saguaro, Electric Fence eta The Flying Rebollos batu dira maiatzaren 29an eta 30ean ospatuko dan jaialdira.



Asier Abrisketa

Areatza Musik & Beer jaialdiko antolakuntzeak zezeilean iragarri ebazan aurtengo edizinoan joko daben talde eta musikarietako batzuk. Orduan Basement Saints, Beaux Gris Gris & The Apocalypse, Hollow Souls, Kris Barras, The Bateleurs, These Wicked Rivers eta Bigblack Rhino taldeen parte-hartzea komunikau eben eta oin, beste bost talde batu dira kartelera.

Bost proposamen barri honeek estilo eta jatorri desbardi-nak batzean dabez, jaialdiaren izaera anitza sendotuz. Ibai Garcia Blues Project talde bizkaitarrak blues klasiko eta garaikidearen arteko zubia eregiten dau, gitarra doinu landuak eta zuzeneko indartsuakaz.

Kataluniatik datorren Sergi Estella musikariak, barriz, *one-man band* formatuan oinarritutako proposamen berezia dakar, blues, folk eta rock doinuak buztartuz eta instrumentu ugari aldi berean erabiliaz. Bere ezaugarriak bereziena berak eskuz egindako instrumentuak (zaborragaz edo etxeko objektuakaz sortuak) jotea da.

Lisboako El Saguaro taldea 2023aren amaieran sortutako rock psikodeliko taldea da. Euren soinua 60ko eta 70eko hamarkadetako rockean oinarritzen da Jimi Hendrix edo Black Sabbath bezalakoen eraginagaz. *Enthusiecstasy* izeneko albuma kaleratu eben 2025ean.

The Flying Rebollos Portugaleteko rock and roll talde mitikoa da, 1990ean sortua

Electric Fence Madrilen 2002an sortutako hard rock taldea da. Euren soinua hard rock klasikoaren (AC/DC, Led Zeppelin) eta rock & roll modernoagoaren (The Hellacopters, Gluecifer) arteko nahaske-ta gisa definitzen dabe.

The Flying Rebollos Portugaleteko rock and roll talde mitikoa da, 1990ean sortua. Ezkerraldeko rock eszenaren erreferente nagusietako bat izan ziran, eta lotura estua euki eben Fito Cabrales (Platero y Tú, Fito & Fitipaldis) eta Robe Iniestagaz (Extremoduro). Bere sasoian disko esanguratsu bi argitaratu ebezan: *Verano de perros* (1993) eta *iEsto huele a pasta!* (1997). 1998an taldea desegin zan, eta kideetako batzuk Fito & Fitipaldis taldearen lehen pausuetan parte hartu

eben. 25 urteko etenaldiaren ostean, 2024an eszenatokieta-ra bueltau ziran areto esanguratsuak beteaz: Txiberri (Urdu-liz), Kafe Antzokia eta Santana (Bilbo), besteak beste. Itzulera arrakastatsu horren ostean, taldea disko barri baten grabaketan murgildu zan. Lan barri horren lehen aurrerapena martiaren 27an aurkeztu eben. Areatzako kontzertuan, disko barriko kantuak zuzenean entzuteko aukera egongo da, taldearen abesti ezagunenakaz batera. Giro bikaina eta jaialdi kutsua izango dituan emonaldia espero da.

Bederatzigarren edizinoa

Bederatzigarren edizinora helduko dan hitzorduak musikea, garagardao artisaua eta gastronomia buztartuko ditu barriro. Basque Beer izango da babesle nagusia, eta Euskal Herriko hainbat garagardao dastatzeko aukerea egongo da.

Jaialdiak ohiko egitureari eutsiko deutso: Gudarien plazan egingo dira kontzertu nagusiak, arrasti eta gaueko saioakaz; Kallartean gunean, barriz, zapatu goizeko eta eguerdiko emonaldia izango dira, giro lasaigoan, food-truck, janari postu eta azokatxo bereziagaz.

Horrezaz gainera, maiatzaren 28an Garena jatetxean jaialdiaren atariko ekimena egingo dabe barriro, gastronomia eta garagardaoa buztartuz. Sergi Estella be bertan egongo da.

LEMOA

Bingen Zupiria konbidau dau Arratiako EAJk

Asier Abrisketa

Arratiako EAJ-PNV lehen lerroko politikari jeltzaleak dabil konbidatuten atzenaldian, politikariek esualdeko egoerea ezetu eta bertoko militante zein boto-emoileek politikariak ezetu dagiezan. Atzenaldian Alberto Martinez Osasun sailburua, Carlos Alzaga Azpiegitura eta Lurralde Garapenerako foru diputadua, Aitor Esteban EBBeko presidentea, Iñigo Anso-la BBBko presidentea eta Adrian Lopez Jaurlaritzako Gazteria eta Emantzipazio zuzendaria egon dira, besteak beste, Arratian. Oingoan, Bingen Zupiria konbidau dabe. Aprilaren 14an egongo da Kotxepin Kultur Etxean, 19:00etatik aurrera.

Bingen Zupiria Gorostidi (Hernani, 1961), ikasketaz kazetaria,

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburua da gaur egun. Segurtasun sailburu moduan, foku mediatikoan egon da Zupiria atzenaldian, dala delitugileen jatorria jakinarazoteko erabakia, dala PSE eta EAJren arteko desadostasunengaitik edo momentu desbardinetan Ertzaintzak erakutsitako portaereagaitik zein “indarkeria erabiltea justifiketan daben taldeak” seinaleteagaitik. Ziur gai honeetaz eta beste hainbatetaz berba egiteko aukerea egongo dala Kotxepinen.



ARRATIA/UBIDE

7,8 milioi eurotik gorako aurrekontua onartu dau mankomunidadeak

2025ean baino % 13 gehiagoko aurrekontua kudeatuko dau aurten Arratiako Udalen Mankomunitateak.

Asier Abrisketa

Martiaren 18an egin zan Arratiako Udalen Mankomunitateko 2026ko aurrekontuak eztabaidatu eta onartuteko plenoa eta EAJren aldeko eta EH Bilduren kontrako botoakaz egin dau aurrera proiektuak. Mankomunidadeak daturik emon ez dauan arren, BEGITUK jakin dauanez 7.845.886,53 euro kudeatuko dira guztira, horreetatik 2,6 milioi euro baino gehiago izango dira hirugarren adinekoentzako Arratiako Egoitzearen kudeaketarako. % 13 igon da aurrekontua, batez be BideON finantzietako.

EH Bilduk salatu dau, aurrekontuen onarpena “berandu eta modu traketsean” egin dala eta ezezkoa, “kudeaketa-gaitasun eza” dala-ta emon dabela: “2025eko balantzea defizitariora da eta mankomunidadeak 200.350 euroko zorra pilatu dau”. Beste alde batetik, koalizioak BideONen gastuei aurre egiteko kezka azaldu dauz:

“Jada inbersinoetarako diru gitxi daukien Arratiako udalek hartu beharko leukie proiektua finantzietako ardurea”. Holan, garraio zerbitzua bideragarriagoa izateko hainbat pausu proposatu ditu; Bizkaibusen egokitzape-nak, Gurutze Gorriagaz hitzarmena, unibersidadeetarako autobusa eta abar.


Udalen ekarpenak

AUMren aurrekontuaren zenbatekoa % 13 igon da eta beraz, udalen ekarpenak be. BideON ez da Ubidera helduko eta beraz, Ubideko Udalak 2025ean baino % 3,04 gehiago bakarrik ipini beharko dau, 27.299,36 euro guztira. Gainontzeko herrietan igokerea nabarmena da: Arantzazu 55.673 € (% 16,65 gehiago), Areatza 107.892,34 € (% 16,13), Artea 75.318,24 € (% 14,13), Bedia 96.593,26 € (% 13,94), Dima 121.133,96 € (% 15,53), Igo-re 289.491,97 € (% 14,40), Lemoa 227.390,46 € (% 11,37) eta Zeanuri 104.423,42 € (% 14,33).

IGORRE

Igorreko Udalak onartu dau frontoiko estalgia eregiteko proiektua

1,3 milioi euroko proiektua maiatzean urtengo da lizitazinora eta asmoa, lanakaz urrietan hastea da.



Erredakzinoa

Igorreko Udaleko udalbatzak, EAJren aldeko boto eta EH Bilduren abstenzinoagaz, Goiko Plazako frontoian estalgia eregiteko proiektua onartu barri dau. Olatz Urkiza alkateak BEGITU azaldu dauanez, 1.328.000 euroko proiektua maiatzean espero da lizitazinora urtetea eta obrak, urrietan hastea aurreikusi da. Hasikera baten, Udalak milioi bat inguruko proiektua egitea espero eban baina Urki-

zak azaldu dauanez, prezioen igoerak tartean, arkitektoak proiektua zehatu ostean igon da aurrekontua. 300.000 euroko igoeraz galdetuta, Igorreko alkateak argitu dau batetik, enpresak lizitazinoa aurkeztutean aurrekontu horretatik beheragoko proiektuak aurkeztuko dabezala. Bestetik, azaldu dau aurrekontua egokitze aldera, lehenengo fase honetan “behar-beharrezkoak” diran lanak eroango dirala aurrera. Holan,

estalgia eregi eta frontoiko lurre barriztuko dira. Halanda be, aurrerago barriztuko da horma nagusia eta instalazinoa prest itxiko dan arren, plaka fotovoltaiakoak aurrerago ipiniko dira.

EH Bilduren abstenzinoa

Igorreko EH Bilduk kezka agertu dau egingo dan inbersinoaren aurrean, batez be, 300.000 euroko igoerea dala- ta “gardentasuna eta zuhurtzia” eskatu dauz, “diru publikoagaz arduraz jokatzeko”. Beste alde batetik, “Igorrek gaur egun daukazan lehentasunen inguruko eztabaida gardenaren” beharra aldarrikatu dau. Izan be, jada herrian eraikita dagozan azpiegiturak indartutearen aldeko apustua egiteko nahia agertu dabe. Berbarako, “holango diru kopuru garrantzitsu- a bideratu aurretik”, frontoi estaliaren funtzino bardina eskolako aterpeak edo kirol- degiko frontoiak beteten ez daben galdetuten dabe.

IGORRE

Igorreko Kiñu Gaztetxeak hamabi urte ospatuko dauz aprilean

Asier Abrisketa

Hamabi urte bete dira Kiñu Gaztetxeak ateak zabaldu ebazane- tik eta urtero lez, hau ospatute- ko egitaraua antolatu dabe. Jai nagusia aprilaren 25ean egingo bada be, Igorreko Kintoen Egu- nagaz batera, april osoan zehar luzatuko da ospakizuna. Asan- bladakideek BEGITU azaldu da- benez indarrezko kaleratzea sai- hestuteko Sabadell Bankuagaz negozi- azinoak aurrera doaz eta hurbilduteko “frututxoren bat” emon dau; halanda be, onartu dabe alde bako- txaren eskakizun- ak urrun manteniduten dirala. April amaierara arte daukie akor- dio batera heltzeako, bestela, epaiketea egongo da barriro. Lehenengo ekintzak aprilaren 9 eta 10ean egingo dira. Hilaren 9an, norberak idatzitako poemak irakurteko mikro irekia egongo da. Gaztetxetik “okupazinoa” gaia proposatu dabe baina gaia libre- a

da. Irakurritako poemakaz liburu- txo bat egingo da eta horretarako, aprilaren 8ra arte bialdu daitekez idatzitako poemak. Gero, Lokatz loreak bertso ikuskizuna egongo da ikusgai. Hurrengo egunean oster- a, barikua, kontzertu gaua egingo da Kiñun. Izan be, Olaia Inziarte abeslari famaua eta In- digo talde sortu barria igoko dira gaztetxe- ko oholtzara, ateak 20:30ean zabalduko dira eta sa- rrerak zortzi euroan salduko dira egun berean.

Aprilak 9, eguena

21:00etan, Lokatz loreak ber- tso ikuskizuna eta poesia mikro irekia.

Aprilak 10, barikua

20:30ean, Olaia Inziarte eta Indi- goren kontzertuak.

Aprilak 17, barikua

20:00etan, Manex Astigarraga- ren umorezko bakarriketea.

Aprilak 24, barikua

19:00etan, Upo, Topolin eta Bar- tolina txiki pailazoen Tronpeta magikoa ikuskizuna.

Aprilak 25, zapatua

11:00etan, herri kirol erakustaldia eta sortzaileen azokea. Garbe- ko aparkalekuan. 15:00etan, bazkaria. Kiñu Gazte- txean. Arrastian, Kintoen Egune- ko egitaraua. 21:00etan, Ezta Ilen, Gailu eta Nize taldeen kontzertuak. Gero, DJ Agata Lagata.



DIMA

Bonbardaketearen 89. urteurrena gogoratuko da kanpaikadaka

Aprilaren 6an joko dira ermitetako kanpaiak eta ekitaldia hilaren 12an egingo da.

Asier Abrisketa

2016an hasi ziran dimoztarrak Gerra Zibilagaz lotutako Me- moria Historikoa lantzean eta hortik sortu zan Bakearen Lore Gara ekimena. 1937an Bizkaia zan Hego Euskal Herriko atzen gordeleku antifaxistea eta Otxan- dio eta Legutio paretik bajatu- ten hasi ziran Molaren tropa faxistak, lehenengo herriak he- gazkinez bonbardeau ostean. Holan, Diman 1937ko aprilaren 6ean hasi ziran bonbak bota- ten eta egun hori hartzean da urtero erreferentzia moduan. Beraz, aprilaren 6an, astelehena 17:00etan, Dimako auzoetako bizilagunak auzoko ermitetara hurbilduko dira, kanpaiak jotera.

Aprilaren 12an barriz, dome- kea, Dimako Udalak eta herriko alkarteek bonbardaketea go- goratuteko ekitaldi instituzio- nala egingo dabe frontoi txi- kian, 12:30ean. Bertan, bertako bonbardaketen, gerrearen eta geroko diktadurearen biktimen

omenezko lora eskaintzea egin- go da. Aurreko urtean euskerea- gaz egin zan moduan, diktadu- rearen biktimetako bat andrak eta honeek Errepublika garaian eskuratutako eskubideak izan ziranez, andrak omendu eta honeen eskubideen alde egin- go da ekitaldian, andrazkoen eskubideen mugarriak aur- keztuaz.

Errezitaldia eta berbaldia

Andren eskubideen gaia lan- tzean segiduteko, beste jar- duera bi antolatu dira Bakearen Lore Gara ekimenaren bueltan. Aprilaren 19an, Dimako eleizan Manttalingo alaba taularatuko da, Mikel Etxaburuk idatzitako Saturrarango andren kartzela- ren gaineko poemetan oinarri- tutako errezitaldi musikatua. Bagilaren 11n barriz, Cira Cres- pok lehen euskal feministak gogoratuko ditu Euskal femi- nismoaren haztegiak, 1912ko mobilazioari buruz berbaldia- gaz, 19:00etan Abaroan.



24. KORRIKA

Euskerea gara eta hemen gagoz!

Beste behin, 24. Korrika emozino eta aldarrikapen artean ospatu da eta hamaika egun eta hamar gauetz lekukoak Euskal Herria eskuz esku zeharkatu ostean, Bilbon amaitu zan euskerearen jairik eta handiena. Hemen Euskal Herriko zazpi lurraldeetako gazte banak osotutako taldeak idatzi eta irakurritako mezua.

Korrikaren mezua

Euskara gara eta hemen gaude. Eskutik eskura trazatu dugu gure herriaren gorpuzkera. Hatsanturik, baina aitzina eram gaitu gorputzak. Urrats bat eta bestea, lurrean errotuz. Korrika dabilenean izerdiz betetzen den gorputza da gurea. Borrokaren eta desiraren aztarnak harro daramatzana. Korrika dabilenean taupadak azkartzen zaizkion gorputza da gurea. Asaldatu egiten dena. Nekatu egiten dena. Hunkitu egiten dena. Korrika dabilenean indarberritzen den gorputza da gurea. Etengabeko eraldaketak aberasten duena. Beti aurrerantz doana. Sohütatik, Urepeletik, Tuteratik, Hendaiatik, Barakaldotik, Gasteiztik, Eskoriatzatik... pasatu den gorputz bat egin dugu. Basa, asfaltoa, belarra, hareaa... zapaldu dituen. Lur zati bakoitzeko eleak

ikasi dituen. Pauso sendoz dabilela dirudi, baina zalantzatia ere bada gorputza. Birpentsatu zalea, beharrezkoa denean iritzia aldatzen duena. Gure gorputzak esan nahi duen dena euskaraz da, baina ez du esan nahi bakarrik euskara. Egin nahi du berba nekeaz, pozaz; botereaz, minaz. Egin nahi die orro batzuei eta irri besteei. Zenbat gara? galdetzen genuenok nortzuk garen ere jakin nahi dugu orain. Nondik garen, zergatik egiten dugun hau guztia, zerk sortzen duen gutasuna. Euskara gara diogu, ez euskara naiz. Komunitateaz ari gara. Beso zabalik dagoen gorputzaz, zeinak leihoak dituen begietan. Urrats bat eta bestea, gorputz bat egin dugu denona. Ez dezagula ahaztu hori bihar, bakoitza berera itzultzen garenean. Euskarak egin du gorputza. Hizkuntzak eraldaketarako tresnak dira, leku

bat ematen digute bizi gaitezen. Euskarak herri hau eman digu. Horregatik mintzo gara izateaz, egiteaz. Euskaraz egin egiten da, baina izatea ez da edozein gauza. Izatea egotea ere bada, nonbait mugimenduan, borrokan. Urrats bat eta bestea, aurrekoei jaso dakargu ahots berrietan. Hoinaino heldu gara, bai, baina ez gara iritsi. Oraina berehala amaitzen da. Azalberrituta datoz munstro zaharrak, baina gorputz bat sortu dugu. Askotarikoa, konprometitua, indartsua. Eta gaur hemen badago, egongo da bihar ere. Euskara gara eta hemen gaude. Hemen gara eta euskaraz gaude. Aurrera goaz. Bazatoz? *Oier Iñurrieta Garmendia, Oihana Arana Cardenal, Elene Mengyu Larrinaga Bilbao, Beñat Jusue Rosano, Aitzol Gil de San Vicente Pla, Xalbat Alzugarai Etxeberrri eta Leire Casamajou Elkegarai.



Zeberioko eskolea.



Zeberioko Udala.



Zeberioko EAJ-PNV.



Austarri Kultur Elkartea eta Austarri Mendi Kluba.



Zeberioko Gazte Elkartea.



Zeberioko EH Bildu.



Txubelasu Guraso Elkartea.



Arratiako Musika Eskolea.



Itu Lemoa.



Zaztaparrak Asti Taldea.



Lemoako Esku Pilota Taldea.



Bediako Udala.



Lemoako Harrobi Futbol Kluba.



Bediako EH Bildu.



Arratia Motor Taldea.



Etixerat Elkartea.



Lemoako EH Bildu



Lemoako Harriketarrak Gazte Asanbladea.



Lemoako Durundi Barri Dantza Taldea.



Lemoako J.B. Eguzkitza Meabe ikastetxea.



Lemoako Udala.



Lemoako Ganzabal Mendi Taldea.

Arratia, Ubide
eta Zeberiko
90 alkarte,
erakunde edo
entidade bai-
no gehiagok
eroan eben
Korrikako
lekukoa mar-
tiaren 27an



Buga Serviauto Motor.



Cementos Lemonako LAB.



Lemoako EAJ-PNV.



Ekin kooperatibea.



Arratiako Mugimendu Feminista-Igtie Baserritar Agroekologikoak.



Igorreko EH Bildu



Igorreko Udala.



Zertu Kultur Elkartea-BEGITU aldizkaria.



Makatzak Arratiako Ekologistak.



Igorreko Eskupilota Elkartea.



BATZ Kooperatibea.



Igorreko Auzoak Astindu alkartea.



Ormazabal enpresea.



Ilunbe.



Igorreko Luis Iruarizaga Abesbatza.



Ekin Eraiketak.



Arratiako AEK.



Arratiako Bertso Eskolea Galizako regueiferoakaz.



Inazio Zubizarreta Guraso Elkarte eta eskolea.



Igorreko Kifü Gaztetea.



Barrualde-Galdakaoko ESIA-Osakidetza.



Arantzazuko EH Bildu.



Arantzazuko Arginatx Mendi Elkarte.



Igorreko Udala.



Arantzazuko Udala.



Tranbia Txiki Guraso Elkarte eta Arratia BHI Institutua.



Dimako Olazabal auzoa.



Dimako Indusi auzoa.



Igorreko jubiladuak.



Dimako Artaungo Azkabitarte Txokoa.



Dimako Andraizea andra taldea.



Dimako Dimnasioa.



Arteako Udala.



Dimako Txabila Kirol Kluba.



Arteako Udala.



Dimako Txumuluxueta Kultur Elkartea.



Arteako Guraso Elkartea.



Arteako Basabide Fundazioa.



Arteako EH Bildu.



BATZ Kooperatibea.



Arteako Herriko Benta.



Areatzako EAJ-PNV.



Areatzako Eskolako Familia Elkartea.



Areatzako Uparan jubiladuen alkartea.



Lamino Kirol Kluba.



Areatzako Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peña.



Dimako Udala.



Dimako EH Bildu.



Areatzako EH Bildu.



Dimako Zamakola 3. adinekoen alkartea.



Dimako Txumuluxueta Pelota Elkartea.



Areatzako Laminetxe Gaztetxea.



Dimako eskolea eta Dimako Guraso Elkartea.



Zeanuriko Txistulariak.



Zeanuriko eskolea eta Guraso Elkartea.



Mugatz Baso Lanak.



Suzien Mendi Kluba.



Zeanuriko Udala.



Arratia futbol taldea.



Zeanuriko EH Bildu.



Arantzarte Dantza Taldea.



Baserrigintza Berria.



Errota Fundazioa.



Zulaibar Lanbide Ikastegia.



Joseba Irazabal furgoneteroari 31 urte eta hamabost Korrika egin ostean omenalditxo egin eutsien Barazarren. Hau izan da bere atzen Korrika.



Ubideko herritarrak.



Areatza, Igorre eta Lemoako udalek Bizkaiko herririk aktiboenak izan gura dabe Kirolur 2026 erronkan

Aprilaren 15etik aurrera, hiru herriak Bizkaiko gainontzekoen kontra ibiliko dira Wellk app-aren bidez antolatutako kirol ligan.



Erredakzinoa

Bizkaia 2026ko Europako Kirol Lurraldea izentau dabela-ta, Arratiako hiru herriek herritar guztiak konbidatzen dabez Kirolur 2026 Erronkan parte hartzera. Udalerrien arteko kirol-liga honen helburua bizimodu osasuntsua sustatzea eta gure herriaren kirol-espirtua erakustea da.

Erronka ez da egun bakarreko norgehiagokea, urtean zehar banatutako hiru etapa dituan erroakea baino:

1. Erronka (udabarria): aprilaren 15etik maiatzaren 17ra.
2. Erronka (uda): bagilaren 15etik garagarriaren 15era.
3. Erronka (udagoiena): urri lehenengoaren 23tik urri bigarrenaren 23ra (Europako Kirol Asteagaz batera).

Nork hartu daike parte eta ze-lan pilatu puntuak?

14 urtetik gorako persona guztiak emon daikie izena. Ez da beharrezkoa herrian erroldatuta egotea; herriagaz loturea sentitzen dauan edonork bere herriko taldea aukeratu daike.

Sistemearen ezaugarriak onena ekidadea da. Bardin da oinez ibili, korrika egin edo uger egitea; ahalegin guztiak modu bidezkoan baloratzeko ponderazio-koefizienteak aplikauko dira.

Gainera, herriaren tamainua ez da oztopo bat izango, sailkapenean biztanleria-koefizientea aplikauko da-ta herri txikiek eta handiek baldintza berberetan le-

hiatu dagien.

Zelan egin bat herriko taldeagaz

Parte-hartzea dobakoa eta erraza da Wellk App-aren bidez: 1. Deskargau: topau "Wellk" zure aplikazio-dendan (iOS edo Android).

2. Erregistrau: sortu zure profila.
3. Batu udalerrira: erroaken atalean, hautatu herriko taldea.
4. Mobidul: erregistrau zure jarduerak App-aren GPSagaz edo sinkronizau zure gailuak (Strava, Garmin, Fitbit, Apple Health edo Google Health Connect).

Sariak jokoa

Norbere herria sailkapenaren gailurrean ikusteaz gainera, bizgarri zuzenak egongo dira:

Banakako sariak: Gitxienez 150 puntu lortzean dabezan erabiltzaileek erroakako merchandising ofiziala jaso ahal izango dabe (udalari esleutako unidadeak agortu arte).

Udal-sariak: sailkapeneko postu onenetan geratu ezker, Udalak dirulaguntzak jasoko ditu, herriko kirol-klubentzako materiala eroatera bideratuko diranak.

"Egin daigun kilometro bako-txak balioa izatea! Emon izena eta lagundu Areatza, Igorre edo Lemoa Bizkaiko bihotz aktiboa izan daiten" dinoe.

Laguntza tekniko: nonok aplikazioaren inguruko zailantzarik izan ezker, kirolurerronka@wellk.eus helbidera idatzi edo www.wellk.eus webgunean argitu daike.



Zeberio Harana mendi martxarako izen-emotea zabalik dago

Aprilaren 25ean egingo dira 43, 24 eta 15 kilometroko martxak.

Asier Abrisketa

Zeberioako Austarri Mendi Klubak aprilaren 25erako antolatu dau Zeberioako Harana Mendi Martxea, Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako puntuagarria izango dana. Hiru ibilbide izango ditu, hurrengo hurrengo, 43, 24 eta 15 kilometrokoak. Izen-emotea aprilaren 21era arte egongo da zabalik zirkuitua.com webgunean eta ordurako 400 parte-hartzaileko mugea gainditu ez bada, egunean bertan be egin ahal izango da inskripzioa. Prezioa 15 eurokoa da federauentzako eta 18 eurokoa federauta ez dagozanentzako.

Ibilbide luzeak 43 kilometro eta 2.400 metroko desnibela dauka eta 07:00etan hasiko da; bidean Piku Bikotx, Garai-gorta, Aibelabe, Arrugaeta, Untzuet, Artanda, Upo, Tontorrandi, Mandoia eta Argiñako

Atxetik pasauko dira. Ertainak barriz, 24 km eta 1.300 metroko desnibela ditu eta 09:00etan hasiko da bidean Mintegi, Upo, San Segismundo, Tontorrandi, Mandoia eta Argiñako Atxetik pasauta. Laburra, 15 kilometro eta 600 metroko desnibele-

koa da eta 10:00etan hasita, Zeberiozana, Mandoia eta Argiñako Atxetik joango da. Bidean, kontrol-postuak eta jan-edan guneak egongo dira, bai eta amaieran urdaia, sal-txitxak, sagardoa, dutxak eta bakoxtarentzako opari bana be.



Mendizaleak Mandoiako tontorrera (638 m) heltzean.



Oneka Aierdi igorreztarra Espainiako Txapelketako finalean

Zezeilean 18 urtez azpiko 800 metroko Euskadiko Txapelketea irabazi ostan, seigarren egin dau Espainiakoan.



Asier Abrisketa

Oneka Aierdi (Igorre, 2009) korrikalaria Galdakaoko Atletismo

Taldean dago eta ezin hobeto hasi dau urtea. 2025eko Gor-beia Suzien 21K lasterketan lehenengo neska arratiarra izan

ostean, 16 urtegaz 800 metroko Euskadiko Txapelketea irabazi eta Espainiako Txapelketara sailkatu eta finalera heltzea lortu eban. Seigarren egin arren, harro agertu da egindakoagaz Aierdi: "Esku hutsik baina bihotza beteta, finalera heldu izana sari handia da".

800 metroko Sub18 Euskadiko Txapelketea Donostian jokatu zan zezeilaren 21ean eta igorreztarrak lehenengo postua eskuratu eban 02:16.93ko marka personalagaz (aurrekoa 02:19.34). Holan, Espainiako Txapelketara saltu egiteko 24 txarteletako bat lortu eban. Martiaren 14 eta 15ean jokatu zan hau Antequeran (Malaga). Lehenengo proban, 02:16.69ko denporea egin eban, aurreko markea barriro hobetu eta bigarren sailkatuta, finalerako txartela lortuta. Hurrengo egunean barriz, aurreko eguneko nekeagaz, 02:19.69ko denporea egin eban, seigarren postuan geratuta.

FUTBOLA

Lemoako Harrobi bigarren postuan sendo

Martiko atzen astegoieneko jardunaldian, Lemoako Harrobik baino ez eban garaipena lortu. Gizonezkoen Arratia Bk bardindu egin eban, eta gizonezkoen Arratia Ak zein andrazkoen Arratia Bk galdu; andrazkoen Arratia Ak, barriz, atsedena izan eban.



Asier Abrisketa

Lemoako Harrobik 2-3 irabazi eban martiaren 28an etxetik kanpo Zaldia Aren kontra. Atse- denaldira 0-1 heldu ziran 21. mi- nutuan Oier Zalduegik sartutako golari esker. Bigarren zatian Unai Zuluetak sartu eban 0 eta 2koa hasi eta segiduan, etxekoek 6 minutu beranduago 1 eta 2koa sartu eban; 60. minutuan ostera Xanti Kortak sartutako golak 1 eta 3koa ipini eban markagailuan. Etxekoek aldea murriztu eban partiduko atzen minutuetan bi- garrena sartuta. 56 puntugaz bigarren postuan dago Harrobi, igoera postuan. Datorren parti- dua Indartsuren kontra jokatu- dau Arlonagusian, aprilaren 1ean, eguaztena, 20:15ean.

Arratia Ak 1-0 galdu eban martiaren 29an Sporting de

Lutxanaren kontra eta 43 pun- tugaz laugarren postuan dago eta igoera ahalbidetzen dauan hirugarren postua lau puntu- ra dauka. Datorren neurketea Otxarkoagaren kontra izango dau, kanpoan, aprilaren 1ean, eguaztena, 20:15ean.

Arratia Bk hutsean bardindu eban San Migelen kontra Urbie- tan. 24 puntugaz, hamaseigarren postuan dago, jatsieratik sei pun- tura. Datorren partidua lurretako Aren kontra jokatu dau kan- poan, aprilaren 1ean, eguaztena, 20:15ean.

Andrazkoen Arratia Ak atse- dena izan eban, baina martiaren 28an jokatu- tuko lagunartekoan 3-2 galdu eban Athletic Cren kontra. Lidertzan segiduten dau Arratiak. Datorren partidua apri- laren 12an jokatu dau Urbie- tan, Bizkerre Bren kontra (17:45).

Nazinoarteko XI. Alebin Txapelketea jokatu da Arlonagusian

Lemoako Harrobi Futbol Klubak hamaikagarrenez antolatu dau Arlonagusian jokatu dan Alebin Txapelketea, aurten aprilaren 11n jokatu dana. Partiduak goizez, 09:45etik 13:30era, eta arrastiz, 16:00etatik 20:00etara, jokatu dira eta sarrerak bost eurotan salduko dira (bazkideentzako hiru euro).

Aurten Euskal Herriko, Galizako, Estatu Espainiarreko eta Portugaleko gaztetxo- en taldeak egongo dira Arlonagusian: Lemoako Harrobi FK, Deportivo Alaves, Atletico de Madrid, Real Valladolid FC, Osasuna, Real Sociedad, Real Oviedo, Athletic Club, Eibar SD, RC Celta de Vigo, Sporting Clube de Braga eta Croises de Bayonne.

MENDI LASTERKETEA

Bueltan da Upo Galapan Areatzan

Asier Abrisketa

Igazko etenaldiaren ostean, aur- ten barriro egingo da Upo Gala- pan. Lamino Kirol Klubak anto- latutako lasterketak maiatzaren 1ean gauz eta hurrengo egu- nean goizez jokatu dira. Izena emoteko epea aprilaren 19ra arte egongo da zabalik [rockthesport.com](#) webgunean. Upo Galapa- nek barriro be aukera parebakoa eskainiko dau mendiaz gozatzeko, kirola eta natura buztartuz, gauz zein egunez.

Gautxori lasterketea maia- tzaren 1ean urtengo da eta sano berezia izango da, beko- ki-linternakaz korriduko da-ta, 21:30etik aurrera. Ibilbideak



bederatzi kilometroko luzeke- rea eta 500 metroko desnibela daukaz. Hurrengo egunean barriz, maiatzak 2, 15 kilometro eta 850 metroko proba na-

gusia jokatu da. Urtekerea goizeko 09:30ean izango da. Gainera, lasterketa bietan ize- na emonda, deskontua izango dabe korrikalariek.

MENDI LASTERKETEA

Gorbeia Suzien 21K lasterketarako, izen-emotea hilaren 13tik 17ra

Gazte arratiarrek zein Zeanuriko herritarrek aprilaren 12an emon ahal izango dabe izena.

Asier Abrisketa

Urri lehenengoaren 26an joka- tuko dira aurtengo Gorbeia Suzien Zeanuriko mendi jardunaldiko lasterketak. Urtero lez, batetik Skyrace-a 32 kilome- troko luzeke- rea eta 2.400 me- troko desnibelagaz, eta beste- tik 21K lasterketea, 21 kilometro eta 1.200 metroko desnibela- gaz egongo dira jokoan. Skyra- ce-rako aurreinskripzioak eta onartutakoen zozketea eginda, oin 21K lasterketakoen izen- emoterako txandea izango da.

Lehenengo, aprilaren 12an, Arratiako 23 urtez azpiko gaz- teek eta zeanuriztarrek emon ahal izango dabe izena lekua izango dabela bermatute- ko. Honetarako, hilaren 12an Zeanuriko udaletxera joan ahal izango dira interesdunak 18:00etatik 19:00etara, NANA

erakutsita. Honeentzako zein eliteko korrikalarientzako 75 dorsal gorde ditu Suzieneko antolakuntzeak.

Nagusi eta Arratia kan- pokoentzako barriz, hurrengo egunean -aprilak 13- zabalduko da [kronoak.com](#) webgunean aurreinskripzioa egiteko auke- rea aprilaren 17ra arte. Pasau dan urtean ez zan zozketarik egin, izena emoten lehenen- goak izan ziran dorsala lortu ebenak baina aurtengoan zoz- ketea egingo da, aprilaren 19an.



BOLA TXAPELKETEA

Izkander Barrenetxea txapeldun Arratiako Banakako Bola Txapelketan

Erredakzinoa

Martiaren 28an eta 29an joku- zu Lemoako bolalekuan Arra- tiako Banakako Bola Txapelketea, eta parte-hartze zein giro bikai- nagaz igaro zan astegoi- ena.

Lehia estua izan zan hasikera- tik amaierara, eta emaitzak be hori erakutsi eban. Atzenean, Izkander Barrenetxea (Lemoa) izan zan txapelduna, 480 puntu eskuratuta.

Bigarren postuan, Nerea Etxe- zarraga (Elorriaga) sailkatu zan,

sano alde txikerragaz, 474 pun- tugaz. Bien arteko tarte estuak argi erakusten dau zein pareka- tua izan zan txapelketea.

Lemoako bolalekua izan zan hitzorduaren agertokia, eta bes- te behin be agerian geratu zan Arratian bolak daukan indarra eta jarraitzaile kopurua.

Egutegiak aurrera jarraituko dau, eta hurrengo hitzordua be Lemoan izango da: aprilaren 18an arrastiz eta 19an goizez jokatu da-ta Arratiako Bi- nakako Bola Txapelketea.



Nerea Etxezarraga eta Izkander Barrenetxea.

● ZINEKLUBA

Rams proiektauko da aprileko Zineklub saioan

Aprilaren 15ean egingo da *Rams (El valle de los carneros)* filmaren gaineko saioa Lasarte Aretoan.

Asier Abrisketa

Igorreko Zineklubak saio barria dakar aprilaren 15erako, eguaz-tena, 20:00etan Igorreko Kultur Etxean. Oingoan, zinezaleak Islan-diako zinemara begira ipiniko dira Grímur Hákonarson zuzendariaren 2015. urteko *Rams (El valle de los carneros)* filamagaz. Pelikula honek film onenaren sariak irabazi ebazan jaialdi ugaritan 2015ean, berba-rako, Cannes, Valladolid, Hamptons eta Zurich-eko zinema jaialdietan.

Pelikuleak Gummi eta Kiddi anaien istorioa kontetan dau, Is-landiako urruneko haran batean bizi dira anaiak baina oin dala 40 urte baino gehiagotik dagoz ha-serre eta bata besteari barbarik egin barik. Halanda be, barriro batu beharko dabez indarrak, euren gauzarik preziaduena, ar-taldea, salbau beharko dabe-ta. Holan, filmak landa-bizitzearen gogortasuna eta familiako hartu-emonen konplejutasuna lantzean ditu, tonu intimista bategaz.



● KONTZERTUAK

Olaia Inziarte eta Indigo Kiñu Gaztetxean

Gaztetxearen XII. urteurreneko egitarauaren barruan, aprilaren 10ean izango dira kontzertuak.

Asier Abrisketa

Igorreko Kiñu Gaztetxeak hamabi urte beteten ditu aurten eta april osoan luzatuko dan egitarauaren barruan, aprilaren 10ean, ba-rikua, Olaia Inziarte abeslariaren eta Indigo taldearen kontzertuak egongo dira entzungai zuze-nean. Ateak 20:30ean zabalduko

dira eta sarrereak zortzi euroko prezioa izango dau.

Olaia Inziarte (Oronoz, Nafa-rraa, 1999) 2020an hasi zan bakarlari moduan euskeraz kan-tetan eta urteotan, euskal esze-nako ahots bereizgarrienetakoa bihurtu da. 2022an *Lehengo lepotikan burua* diskoak sonori-dade tradizionalak eta abangoar-distak buztartu ebazan eta *Behe klasekoa* abestia nabarmendu zanetik euskal gazte abesle os-petsuenetakoa da.

Indigo taldea barriz, Behe Na-farroa eta Lapurditik datozen lau musikarik osotuten dabe. Eneko Lamothe da taldeko abeslaria eta lehen bakarlari moduan baebilen be, taldea osotuta rock doinu lasaietara hurbildu da. 2025eko Gaztea Maketa Lehiaketako fina-lera ailegau zan laukotea eta bere lehenengo diskoa oin aurkeztu barri dau, *Aterpe hori*.



Olaia Inziarte.

● DISKOA

Arratiako Koruak 75. urteurrena ospatuteko diskoa aurkeztu dau

Areatzako eleizea bete-beteta egon zan Agate Deuna eta aldaerak diskoaren aurkezpen kontzertuan.



Asier Abrisketa

Martiaren 20an Areatzako udale-txean Arratiako Koruko zuzenda-ria dan Garazi Navasek kazetari eta herritarrentzako diskoa ber-baz aurkeztu ostean, hurrengo egunean egin zan Agate Deuna eta aldaerak diskoa jente-artean aurkeztuteko kontzertua eleizan. 250 persona inguruk bete eben Bartolome Deunaren eleizea eta Garazi Navasek zuzenduta, Arratiako Koruko abeslariak txalo zaparrada handiak eragin ebazan euren kantuakaz, eleizako akus-tikea aprobetxauta.

Navas zuzendariak Areatzako udaletxean azaldu ebanez, zortzi hilebeteko lana izan dau *Agate Deuna eta aldaerak* diskoaren produktzioak. Koruko kideak, musikariak, teknikariak eta abar batuta, 60 personaren lana izan

**Auzolan sano
ederra izan
da, uste dot
oso emaitza
polita lortu
dogula eta oso
harro gagoz**

da diskoa. Askotariko lantaldea, izan be, gazteenak bederatzi urte eta beteranoenak 85 urte daukiez. Baina halango koru bat eratuteak askoz denpora gehiago behar izan dau, 75 urte gizonen korua 1951n sortu zanetik eta ia 60 urte, 1967an ume eta andrak sartu ziranetik. Urte luze horreetan, bai musikea bai tra-dizinoa aldatuten joan dirala-ta ipini deutsee "aldaerak" izena diskoari. "Auzolan sano ederra izan da, uste dot oso emaitza polita lortu dogula eta oso harro gagoz", adierazo eban Navasek aurkezpenean.

Diskoaren 500 kopia egin dira eta gehienak koruko kide eta ingu-rukoentzako, udal, artxibo historiko eta instituzino desbardinenzako izango dira. Halanda be, diskoa labur.eus/Arratiakokorua75 helbi-dean entzun daiteke doban.



● LEHIAKETE

Bziberren 9. edizinoa martxan, sareak euskeraz beteteko helburuagaz

Azkue Fundazioak bultzatutako ekimen honek gazteak animau gura ditu sare sozialetan euskerazko edukiak sortzera, batez be TikTok eta Instagramen.



Asier Abrisketa

Gazteak eta sareak euskeraz ehuntzeko helburuagaz antolatuten dau Azkue Fundazioak Bziber Lehiaketea eta daborduko badago martxan bederatzigarren edizinoa. Edizino honetan, astero eduki-sortzaile batek gidatuko dau lehiaketea, bideo-proposamenak

egin eta gero, parte-hartzaileek bideoak euren estilora sortu eta sareetan partekatuteko. Aprilaren 17ra arte dago parte hartzeako aukerea eta baldintza bakarrak, 14 urtetik gorakoak izatea eta bideoak euskeraz sortzea dira. Bideoak proposatuko dabean eragile digitalak Janire Atxurra (@janiatxu), Andoni Etxezarreta

(@ibilimunduan), Luma Otaño (@luma.ov) eta Julen Unanue (@unaanue) dira eta euren sareetan egingo dabez proposamenak. Gainera, sorkuntzarako aholkuak emongo ditue eta eurak izango dira astero banatuko diran FNACen gastetako 100 euroko opari-txartelak nortzuek irabaziko dabean ebatziko dabena.

BZ Sarea, aurrerapausu bat gehiago

Aurtengo barrikuntza nagusietako bat BZ Sarea izeneko kategoria da. 17 urtetik gorakoentzat izango da, eta sari berezia izango dau: hurrengo edizinoan eduki-sortzaile moduan kontratu profesionala eskuratzeko aukerea, FNACen gastetako 100 euroko opari-txartelaz gainera. Holan, lehiaketeak ez dau bakarrik parte-hartzea sustatzen eta euskeraz sortzean hasten dabizenen ibilbideari bultzadea emoteko pausua be bada.

● JANTZA TOPAKETE

Euskal Herriko Gazteen Dantza Topaketarako izen-emotea zabalik

Euskal Dantzarien Biltzarrak (EDB) Gazteen Dantza Topaketaren laugarren edizinoa iragarri dau.

Erredakzinoa

Lehenengo edizioa Araian egin zan, eta bigarrena Areatzan 2024an; aurtan, barriz, Lakuntzan (Nafarroa) izango da laugarrena, bagilaren 26tik 28ra bitartean. Topaketak 15 eta 26 urte bitarteko jantzari gazteak batzea dauka helburu, euskal jantzearen etorkizuna alkarregaz lantzeako eta belaunaldi arteko transmisioa indartzeko.

Hiru egunetan, bizikidetzea, tailerrak eta hartu-emonak izango dira ardatz nagusiak. Izen-emotea aprilaren 10era arte egongo da zabalik, eta honako loturan egin daiteke: <https://bit.ly/gdt2026>. Antolatzaileek gogorazio dabe plaza mugatuak dirala, eta interesdunei lehenbailehen izena emoteko deia egin deutse. Euskal Herri osoko gazteak parte hartzera animau dabez, euskal jantzak sustatzen jarraitzeko asmoz.



DUNBA

Logoen mundu interesgarria

Dimako eskolako 5. mailako ikasleak

Ikasturte honetan, 5. mailako ikasleek logoen inguruko proiektu bat egin eben eta euren laguntzeagaz, Eider Eibar ilustratzaileak, eskolako logo barria sortu dau. Hasikera baten, proiektu txiki bat izango zana, proiektu handi bihurtu zan, ikertzen eta ikasi bitartean gauza interesgarri asko deskubridu ebezalako.

Besteak beste, logotipo ezagun batzuen sekretu eta bitxikeria ugari aurkitu ebezan, esaterako: horren goxoa dan Tobleroneren logoak hartz bat dauka ostenduta, fijau zarie? Eta euskalduna dan Ternuak balea baten buztana irudikatzen dau euskal arrantzaleak bertara joaten ziralako baleak ehizatza, jakin dozue? Horren ostean, koloreen mundua be aztertu eben eta emozioakaz daukien lotureaz konturatu ziran.



Eurentzat guztiz motibagarria izan zan lana egin eben gero: logotipo famaduak eraldatu ebezan euren izen, abizen eta inisialakaz. Guztira 37 eraldaketa, a zelango sormena! Guzti hori egin eta gero, produktuen marken atzean egiten dan lan eta prozesu guztiaz konturatu ziran eta horregaitik, sektore ekonomikoak aztertzea ebatzi eben: 1. sektorean naturatik hartzean dabaz lehengaiak, 2. sektorean lehengaiak produktu landu

bihurtuten dabaz eta 3. sektorean zerbitzuak eskaintzen dabaz. Horrenbeste lan egin eta gero,



azken emaitza eskolako logo barria izan da. Logoak eskolako siglak ditu: D eta E. E-a jentil bat da (eskola berez) eta esku baten harri bat dauka, D hizkia kolorez eta edukiz betea. Beste eskuan arkatza dago, jakituria, edukia, kulturea... guzti hori transmititzeko lanabesa. Erabilten diran koloreen artean berdeak eta urdinak basoa, zerua, ura, naturea, bedarra, landareria... adierazoten dabe eta gorriak be-roa, burua, lurra eta bihotza.

● AGENDEA

APRILAK 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

10:00etatik 13:30era, LH 3-4 mailakoentzako *Sukaldeko esperimentuak* tailerra. Ludotekan.

Maiatzaren 1ean eta 2an izango diran Upo Galapan Gautxori eta Upo Galapan 15K mendi lasterketetarako izen-emotea zabalik aprilaren 19ra arte *upoGalapan.blogspot.com*.



AREATZA/IGORRE/LEMOA

Zure herria Bizkaiko herririk aktiboena izateko Kirolur 2026 Erronka martxan. Bat egin Kirolur 2026 Erronkeagaz eta gehitu puntuak herriarentzat zure jardueren GPS erregistroaren bidez. Zure herria, Bizkaiko gainontzekoen aurka. Sariak dagoz jokoan eta irabazi ezker, herriko kirol taldeentzako materiala lortuko da. Promozinoko bideoa: <https://youtu.be/xDXlbQY3EAs>. Zalantzarik izan ezker

tutoriala: https://youtu.be/_wGvUh_GFry. 1-. Deskargatu Wellk App-a: <https://onelink.to/ncpuay>; 2-. Emon izena eta hautatu zure herriko taldea; 3-. Hasi puntuak batzean kilometro aktiboak eginaz aprilaren 15etik aurrera. **ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO** Nafarroan egingo dan Euskal Dantzarien Biltzarraren (EDB) Gazteen Dantza Topaketaren laugarren edizinoan parte hartzeako izen-emotea aprilaren 10era arte zabalik. Lotura honetan egin daiteke: <https://bit.ly/gdt2026>.

BEDIA

Aprilaren 17ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketarako proposamenak aurkeztuteko aukerea. Informazino gunean.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Aprilaren 13ra arte, *Hobetu zure segurtasun digitala eta ikasi AA erabiltzen* tailerrera (aprilak 14 eta 21) izen-emotea. 94 426 88 44 edo

661 305 485 telefonoetan.

Maiatzaren 14ean NAN-a edo pasaporteaz izapidetzeko zitak eskatzeko aukerea zabalik. 09:00etatik 13:00etara 94 685 25 16 telefonoan.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Aprilaren 30era arte, liburutegian euskerazko liburu bat maileguan hartzean dabenentzako zozketea, euskerazko liburuak erosteko 25 euroko zortzi bonu.



UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.



Zuhaitz Gurrutxaga umoregilea
Igorreko Lasarte Aretoan

Urietan Lemoan egin modura, Zuhaitz Gurrutxagak bere hirugarren umorezko bakarizketea, *Nortasun agiria*, eskainiko dau Igorreko Kultur Etxean. Errealeko eta SD Lemonako jokalaria ohia, ETBko aurkezlea, antzezlea, musikaria eta umoristea da gipuzkoarra eta Igorreko emonaldia aprilaren 11n egingo dau, 19:00etatik aurrera.

Lan honetan, aurrekoetan moduan, bere benetako bizipen personaletan oinarrituta dago bakarizketea, eta hor lantzean dauz gauza asko: bikote apurketak itxitako mina, euskaldun on bihurtzea ze gatxa dan, edota TOC (Nahasmen Obsesibo Konpulsiboa) izateak sexu-harremantetan ekar leikezan buruhaustea. Hori da, ba, *Nortasun agiria* bakarizketearen ardatza.

Dorsalak amaitu arte, maiatzaren 30ean jokatuko dan Ubidestroi Trail 2026an izen-emotea zabalik *kronoak.com* webgunean.

Aprilaren 7ra arte, hondakin txikientzako GARBIKER Garbigune Mugikorra.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Aprilaren 10etik bagilaren amaierara arte barikuetan 19:30etik 20:30era egingo dan saltsa eta bachata jantzen ikastarorako izen-emotea zabalik aprilaren 8ra arte udaletxean. 45 euro.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

Aprilaren 20ra arte, Zeberio Harana Mendi Martxarako izen-emotea *zirkuitua.com* webgunean.

APRILAK 4
LEMOA

Lemoako EAJren Lemoatzako ikurriñearen igokerea. 18:00etan, urtekerea Batzokitik; 18:55ean, gudariei lora eskaintzea; 19:00etan, ikurriñearen igokerea; 20:00etan, txorizoa, urdaia eta txokolatea Batzokian.

APRILAK 6
DIMA

17:00etan, Dimako bonbardaketearen 89. urteurrena gogoratuteko kanpaikadak herriko ermitetan.

APRILAK 7
AREATZA

10:00etatik 12:00etara, HH 3-4 mailakoentzako *Sukaldeko magia* tailerra. Ludotekan; 12:00etatik 14:00etara, HH 5 eta LH 1-2 mailakoentzako *Zaporeen laborategia* tailerra. Ludotekan.

DIMA

Aprilaren 21era arte, gailu eta hondakin txikientzako GARBIKER Garbigune Mugikorra. Iturrigorri kalean.

APRILAK 8
IGORRE

10:00etatik 13:30era, LH 3-6 mailakoen Areatza, Igorre eta Lemoako ludotekan topaketea.

14:00etan, Udalak eta Bizkaidendak-ek merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuentzako bezeroak erakarteko app-aren aurkezpena egingo dabe, 15:00etan, kopaua. Kultur Etxean.

APRILAK 9
IGORRE

Kiñu Gaztetxearen XII. urteurrena. 21:00etan, *Lokatz loreak* bertso ikuskizuna eta poesia mikro irekia. Kiñu Gaztetxean.

APRILAK 10
IGORRE

19:30ean, *S(u/a)minetik bakera* ikus-entzunezko lan eszenikoa. Lasarte Aretoan.

Kiñu Gaztetxearen XII. urteurrena. 20:30ean, Olaia Inziarte eta Indigoren kontzertuak. Kiñu Gaztetxean.

UBIDE

10:00etan, podologo zerbitzua (izen-emotea udaletxean).

APRILAK 11
IGORRE

11:00etan, *S(u/a)minetik bakera* ikus-entzunezko lan eszenikoaren gaineko mahai-inguru irekia Iñaki Peña zainketa aringarrietako mediku eta Marta Sariñena dolu prozesuetan aditua dan psikologo eta terapeuteagaz.

LEMOA

09:45etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara, Lemoako Harrobiren XI. Alebin Txapelketea Arlonagusian: Lemoako Harrobi FK, Deportivo Alaves, Atletico de Madrid, Real Valladolid FC, Osasuna, Real Sociedad, Real Oviedo, Athletic Club, Eibar SD, RC Celta de Vigo, Sporting Clube de Braga eta Croises de Bayonne.

APRILAK 12
DIMA

12:30ean, Dimako bonbardaketearen 89. urteurreneko ekitaldi instituzionala:

lore eskaintzea eta andrazkoen eskubideen mugarrien aurkezpena. Frontoi txikian.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Tafiti eta lagunak*; 19:30ean, *Hamnet*.

ZEANURI

18:00etatik 19:00etara, 23 urtez azpiko arratiar eta Zeanuriko herritarrentzako Gorbeia Suzien 21K lasterketarako izen-emotea (NANagaz joan). Udaletxean.

APRILAK 13
BEDIA

III. Ezin Dozu Galdu. Aprilaren 31ra arte, liburutegian maileguan hartutako nobela grafikoen gaineko iruzkinak batuko dira, "zergaitik ezin dozu galdu?" galdereari erantzuteko.

18:00etan, 16-18 urteko gazte eta gurasoentzako orientazino saioa: *Zure etorkizuna aukeratu: etorkizuneko ikasketak aukeratzeko orientazino-berbaldia*. Informazino gunean.

Aprilaren 24ra arte, maiatzaren 16ean Albaola Itsas Kultur Faktoria bisitetako urtekarako izen-emotea (20 euro). Informazino gunean 16:30etik 19:30era.

ZEANURI

Aprilaren 17ra arte, Gorbeia Suzien 21K lasterketarako izen-emotea *kronoak.com* webgunean.

APRILAK 14
IGORRE

11:00etatik 13:00etara, *Hobetu zure segurtasun digitala eta ikasi AA erabiltzen* tailerraren lehen saioa: Segurtasuna eta konfiantza digitala. Kultur Etxean.

LEMOA

19:00etan, EAJk antolatutako Bingen Zupiria Segurtasun sailburuaren berbaldia. Kotxepin Kultur Etxean.

APRILAK 15
IGORRE

Zinekluba. 20:00etan, *Rams (El valle de los carneros)* filmaren proiektzinoa. Lasarte Aretoan.

APRILAK 16
AREATZA

Urtekerea Artziniegara. 09.30ean, urtekerea Areatzatik, 11:15ean, bisitea Museo Etnografikora, 14:30ean, bazkaria; 17:15ean, bisitea Santxotena Museora eta 19:00etan, etxera buelte. Uparan Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta.

DIMA

18:30etik 20:00etara, liburutegia espazio polibalente bilakatuteko parte-hartze prozesuaren lehenengo batzarra. Liburutegian.

IGORRE

18:30ean, Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkarteak antolatutako *Zer jango dugu bihar? Gaurtik eragin!* berbaldia, BioLur eta Ereindajan alkarteetako kideakaz. Kultur Etxean.

KOMIKI A

Kailo Ren



DANERIK

Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

Hari's Rock School. Gitarra klaseak
emoten dodaz adin guztietarako.
Igorreko Kiñu Gaztetxean.
Interesdunek deitu 664 303 528
telefonora edo idatzi a.harillo.
gracia@gmail.com helbidera.

Axular Herriko Tabernan tabernari
bi behar dira astegoienerarako.
Interesdunek tabernan bertan
galdetu, axularke@gmail.com
helbidera idatzi edo telefonoz deitu:
94 673 70 92.

Umeentzat, koloretsua, Dora
Esploratzailearen marrazkiekaz.
Lauzpabost urteko umearentzat.
Errobera txikerrak, aurrean zestillea
eta atzean pelutxearentzat kutxa.
Egoera eta itxura onean. Eskatu edo

60 urtetik gorako lesbiana eta
lesbianagai bila. Edadeko andrea zara
eta aisialdirako edota militantziarako
espazio ez-hetero baten bila zabilzu?
Deitu edo bialdu mezua: 608 062 592.

Kotxeak sartzeako garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

Zeanurin adineko pertsona zaintzeako eta konpainia egiteko pertsona baten bila gabiz, autoa izatea beharrezkoa da, ordutegi malgua eskaintzen da, baldintza interesgarriak. Interesdunak ipini hartu-emonetan: 648 419 078.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat *begitu@begitu.eus* helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igoerreko Kultur
Etxeak emondako
bina sarrera Zuhaitz
Gurrutxagaren *Nortasun*
agiria umorezko
bakarrizketarako.

2 Areatzako Aldamin
jaketxeak emondako
afaria lagun birentzako.

Juanti Menika (Arantzazu)
Iratxe Etxebarria (Bilbo)



Pedro Ormazabal (Areatza)



**Zerturen
argitalpenak
jasoko dozuz,
zozketetan
sartuko zara.**

BEGITUk 24
urte eta
ehundaka
lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER
-
SABINO ARIANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00



BEGITU

**Ipini zure iragarkia Begitun
649 979 115
*inigoirua@begitu.eus***

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Blatzen dago jabetza

- Solmentan zein alokatuz
- Lurrik (erakitea, landat, basok...)
- ETREBETZAK (jauzi, baserri, enxebre...)
- Garaioak
- Larri komertzialak
- Publikoak...
- Balerazkoak

Bider dago proiektu

- Irakiri berriak erakitzeko
- Erreforma
- Arkitekto-proiektuak
- Larri diseinua
- CEE eta ITE-ak
- Hirigintza oharak
- Negozioak irekitzeko
- Kudeaketa



arratia
INMOBILIARIA

Unibertsitate Argita. 23. berraketa - Argita

Argita. 24. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 25. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 26. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 27. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 28. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 29. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 30. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 31. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 32. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 33. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 34. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 35. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 36. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 37. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 38. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 39. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 40. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 41. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 42. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 43. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 44. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 45. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 46. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 47. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 48. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 49. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 50. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 51. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 52. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 53. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 54. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 55. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 56. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 57. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 58. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 59. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 60. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 61. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 62. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 63. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 64. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 65. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 66. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 67. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 68. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 69. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 70. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 71. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 72. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 73. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 74. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 75. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 76. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 77. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 78. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 79. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 80. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 81. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 82. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 83. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 84. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 85. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 86. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 87. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 88. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 89. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 90. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 91. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 92. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 93. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 94. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 95. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 96. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 97. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 98. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 99. 421 51 89 - 421 54 20 31

Argita. 100. 421 51 89 - 421 54 20 31

Kili~Kili
Ampoala w/o Puericulture
Lehendakari Agirre 10 - IGORRI (Bikola)
Tel.: 94 473 43 81

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho

pintura lanak
 Sabino Arana, 3. 3a
 Igoite 48140 Birkain
 ☎ 94-673-70-87
 ☎ 609-79-40-54

Olaetxe
Optika

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gaitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es


ASESORÍA
Gorbeialde
Juridiko · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza
Tfnos. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Onakiaue Harri Irastetxeak

Gure

irastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre
---	--



BEGITU

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2026AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2026an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen duan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Ondino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.